

**Airea tratatzeko unitate (ATU) baten  
ingurune birtualetarako eta gamifikaziorako  
hezkuntzako eduki digitalak sortzea,**  
*SALTOKI, SA enpresarekin lankidetzan*



**Lanbide Heziketa** | **Formación Profesional**  
NAFARROA | NAVARRA

**Ikastetxea**

Iruñeko "Virgen del Camino" IIP

**Koordinatzailea**

*Juan Pablo Martínez Lorrio*

**Irakasleak**

*Ernesto Gil Espinosa*

*Francisco Del Río Andueza*

*Jorge Manero Pérez*

# Helburua

Ikasleei eta Saltoki, SA enpresako langileei prestakuntza ematea Aire tratatzeko unitate (ATU) batean garatzen diren elementuei eta prozesu psikometrikoei buruz, horretarako egindako bideojoko didaktiko baten bidez. Bideojoko horretan, ikasleei ATU batean gertatzen diren kalkulu egoera desberdinak aurkezten zaizkie, zenbait datu abiaburu hartuta, besteak beste, temperatura, hezetasun erlatiboa, presioa, konfort egoera, airearen kalitatea eta abar, eta ikasleek aztertu eta konfiguratu behar dituzte, ongi funtziona dezaten.

Metodologia gisa joko informatiko bat erabiltzen da (gamifikazioa), ikasleen ikaskuntza ez-formalerako. Jokoaren bidez, ikasleek:

- Instalazio termikoen erregelamendua (RITE) erabiltzen dute.
- Diagrama psikometrikoaren erabileran trebatzen dira.
- ATU baten osagaiak ezagutzen dituzte.

# Ezaugarriak


Intercooler bideojokoaren garapena:

Jokalariak zenbait planetatan zehar bidaiatuko du espazio-ontzi batean, atmosferaren baldintzak erregulatzeko misioarekin, galaxian bizi diren estralurtar espezie desberdinek bizirauteko aukera izan dezaten. Planeta bakoitzean jokalaria espezie lagun bat aurkituko du, atmosfera oso egonkorra ez izatearen ondorioak jasaten ari dena. Espazio-ontziak ATU unitate bat du. Jokalaria kontrol-postu batetik unitate hori maneiatzen du, planeta jakin horretan espezierako baldintza onenak sortzeko. Misioetan aurrera egin ahala, jokalaria ekipamendu berria izanen du bere ATUn, urrutiago dauden planetetan erronka konplexuagoei heltzeko aukera emanen diona.

Jokoaren erronkak mailakatuak izanen dira zailtasunari eta Aire tratatzeko unitatearekin egin beharreko ekintzen konbinazioari dagokienez.

Behin azken erronka amaitu ondoren, ikasleak mezu elektronikoa bidaltzen ahalko du bere puntuazioarekin.

Proiektua enpresekiko lankidetzaren modalitatearen barnean kokatzen da. Saltoki, SA biltegi banatzailea, "Virgen del Camino" IIPko Hotz eta Beroaren Departamentuarekin batera aritu da.



## PROIEKTUAREN ERABILGARRITASUNA

### Ikasleentzat:

Edukiak zuzenean aplikatzen ahal zaizkie Hotz eta Beroaren espezialitateetako erdi eta goi mailako zikloak egiten ari diren ikasleei. Bideojokoa metodologia desberdinekin erabil daiteke, bai aurrez aurreko prestakuntzan bai onlinekoan.

### Ikastetxearentzat:

Erreferente bat izatea irakaskuntza metodologia berria erabiltzeari dagokionez.

### Saltoki, SA enpresarentzat:

Beren plataforma birtualean ezartzea, beren langileei prestakuntza emateko.

# Lortutako produktuak



Bideojokoa: Airea tratatzeko unitatea.

ATUa osatzen duten elementuen 3Dko animazioak, haien funtzioamendua ikusteko aukera ematen dutenak.

Muntaketa konfigurazio desberdinen 3Dko animazioak, bideojokoak dituen mailak bezainbeste. Haietan elementu guztiak animatzen dira, hala nola airearen mugimendua eta aireak elementu desberdinetatik igarotzean dituen tenperaturaren aldaketak.

